

## IPAR EUSKAL HERRIA XIX.MENDEKO AZKEN HAMARKADE TAN

*Sara, 1991-XII-20*

*Manex Goihenetxe*

Nolako zen Ipar Euskal Herria denbora horietan? Erantzunik argiena edo adierazgarriena aurki dezakegu 1867.an E. Reclus ikerlariak *Revue des Deux Mondes* agerkarian argitaratu zuen artikulu batean: “Les Basques un Peuple qui s’en va” (1). Euskaldunak ziren beraz desagertzen ari zen jende bat. Iduri zait orduko gizartearen eta kulturaren ingurugiroa nahiko ongi adierazten duela idazleak:

1. Alemaniatik ufatzen zuen haizearen berri ematen digu, Humboldt zela medio Alemaniako eskolaren pean atxikiak edo haziak baitziren beti euskal ikasketak:

“Le mémoire de Humboldt sur la langue basque, inséré en 1817 dans le Mithridate d’Adelung, et les Recherches sur les habitants primitifs de l’Espagne” (...) ont été le point de départ des travaux entrepris en Allemagne, en France et dans le pays basque lui-même, sur l’étude comparée de l’ancien idiome des Ibères” (2).

2. Hizkuntza-mugari garrantzia ematen zen. Iduri luke orduan Euskal Herriaz ezin zitakela hitzegin gaskoinarekin euskararen mugak parekatu gabe. Eta hogeigarren mendetik begiratu eta Euskal Herriari buruz hor erabiliak izan ziren joko batzu nahiko arriskugarriak direla erran dezakegu.

Halere Elisée Reclus ikerlariaren oharra argia eta zuhurra da hizkuntzaren muga aipatzen duelarik:

“Quand il s’agit de tracer avec vigueur la frontière entre le basque et les patois béarnais ou gascons, les renseignements

---

(1) E. Reclus; *Revue des Deux Mondes*, 1867.eko martxoaren 15a, 319-340 or. é(2) *Ibid.*, 322 or.

(2) *Ibid.*, 314-315 or.

nécessaires font défaut. Certaines communes situées au sud de l'Adour entre Bayonne et l'embouchure du Gave, appartiennent à la fois aux deux régions ethnologiques" (3).

3. Besterik ere aipatzen du, hala nola euskal naziotasunaren ezau-garrien galerapena edo desagertzen ari den jendearen aurpegi zimurdikatua:

“Les antiques Euskariens ne sont plus ce qu'ils étaient jadis: les traits de leur caractère national s'atténuent chaque jour” (4).

Jadanik gauza bera errana zuen Humboldttek, Duvoisinek edo ere Fr. Michel batek:

“Réduits par la guerre de plusieurs siècles à ne plus représenter par le nombre, pour ainsi dire, qu'une tribu, et dans l'impossibilité de prendre rang parmi les grands peuples dans l'organisation de nouvelles nationalités, (...) ce petit peuple épuisé, rassasié de tant de généreux combats, incapable de relever désormais son antique drapeau, à vivre silencieux sur ses montagnes et dans ses vallées, préférant avouer sa lassitude et goûter le repos acheté par des efforts sans exemple, au moins pour la durée, que se confondre avec les autres peuples et jouir d'une gloire qui ne lui appartiendrait pas en propre.” (5)

Aipatzen du ere nolako kalte haundiak ekartzen dituzten bideek eta trenbideek:

“Chaque grande route qui pénètre dans le territoire basque fait en même temps une trouée dans la langue elle-même (...) Les chemins de fer (...) exercent l'influence la plus fatale à la pureté de l'idiome et prochainement les locomotives de la voie des Aldudes, passant dans les vallées les plus reculées du pays basque, seront pour l'euskara des engins de destruction bien plus terrible encore” (6).

Bizimoldeak ere aipatzen ditu: “Les moeurs se perdent en même temps que la langue” (7).

Euskal Herriari Elisée Reclusek egiten dion behako berdina aurki dezakegu bai kulturaren aldetik, bai gizartearen ala ekonomiaren aldetik ingeles batek argitaratu duen liburu gotor batean: *La fin des terroirs* (8). Horrelako adierazpena euskararat itzultzea ez da erraz: euskarazko lurral-

(3) Ibid., 314-315 or.

(4) Ibid., 311 or.

(5) Fr. Michel, *Le Pays Basque*, Paris, Didon 1856, 224-225 or.

(6) E. Reclus, *op. cit.*, 328 or.

(7) 338 or.

(8) E. Weber, *La fin des terroirs*, Paris, Fayard, 1983.

de zokoratuen amaiera? Laburbilduz, XIX. mendean Ipar Euskal Herriari ere gertatzen zaiona da esparru zokoratuenetaraino hedatu zela kanpotik zetorren aldaketa berrien haizea. Horrek ez baitu erran nahi euskal gizartearen bukaera. E. Weber-ek adierazi nahi duena da XIX. mendean azkenaldian iragan denbora bat amaitzen ari zela. Iparraldeko kasuan 1860-1870 inguruan amaitzen hasi zena oso amaiturik zegoen 1900 urteetan. Zein nolako garaia amaitu ote zen?

Aldaketa haundiak jasan zituen Iparaldeak bai gizarteari, bai ekonomiarri begira. Baserrietako industria zaharrak, ehungintzari edo olagintzari lotuak desegin ziren. Itsas hegiaren lehen hiritartzea 1856-1876 tartean koka daiteke, gero garatuz joan zena 1901garren urterarte: Miarritzeko jendetza % 132z emendatu zen, Hendaiakoa % 121z. Ber denboran jende hustea zuen jasan Iparraldeko barnekaldeak: Ostibarreko eskualdean % rentzat 5z galtzen hasi zen berezko hazkunde tasa. Ez da harrizkerik Euskal Lore jokoetan emigrazio gaia anitzetan aipatua izan bazen.

Trenbidea ere sartu zen Euskal Herriko haranetan: 1884an Donapaleun, 1887an Maulen, 1899.ean Donibane Garazin. Merkatu ekonomia zahalago batean sartu edo integratu zen barnekaldea.

Industrigintza berri bat ere kokatu zen Zubero eta Aturri bokalearen artean. Hazparneko kasua aipa dezagun. 1885-1890 arte horretan larru-apaintzaileen iharduera desagertzen bada, larruzko oinetakoenginguruan sortu industria berriaren teknikak agertu ziren Hazparnen: mekanizazioa, petrolioia, lurruna ta elektrizitatea. Horiek oro koka ditzakegu 1897-1898 ozkaren artean guti gora-behera. Langile-kopurua aldiz 3.000 taraino igoten zela 1906.an. Bertakoa zen. Maulen aldiz ber denboran eratu zen industrian zuberotar baino aragoitar gehiago zen hasieran bederen. Gauza bera 1881.an Bokalen labe garaietan hasi ziren 1800 langilekin: gehienak Landesetatik edo Aragoialdetik etorriak.

Aldaketa tekniko horien ondorioz, hirigintzarekin batera, kultura zaharreko Euskal Herria mundu berri baten aintzinean aurkitu zen: hiria, hiritako bizimolde berriak, lantegiak, langileria, kasu batzutan kanpotik zetorrena, ideia berriak ere. Aipatu dugun ingurugiro sozio-ekonomiko eta sozio-politiko honen barruan *Eskualduna* bezalako prentsa batek azaldu zituen “zuri”/“gorrien” arteko borroka ere koka ditzakegu. Euskaldungoa gehiago lotua ohiko gizarteari, baserriko gizarteari. Adibide frango daukagu. Egiazko euskalduna lurzale baizik ez zitekeen izan:

“Laborantza gauza haundi	Jinkoaren Eskua
Eta boteretsua.	Gizonaren eskuari
Hartan da lanean ari	Berma dadin lotua” (9).

(9) Adema-Zaldubi senperetarra, *Euskaldun onaren Almanaka*, 1881.

Elizanburu saratarrak, errepublikanoa izanik ere, ez ote zuen gutiespen berdintsua adierazi hiriari buruz?

“Laborari gaixoak mundua du hazten  
Eskerrik nahi-bada ez duen ukaiten  
Ohean hiritarra dago ahantzirik  
Arrangura guziak loan ehortzirik (10).

Euskaldungoaren galgarri da hiria, “nunbaitikako langile dohakabe hek” osatzen zutena (11) Euskalduntasunaren izenean, euskal nortasuna zaindu nahian, —eskuara, Eskual Herria, eskualdunak—, euskal hizkuntza gizarte hiritartu eta arrotzuaren pean galtzera ez uzteko, erdal eraginaren sarketa guziak salatu zituzten euskalzale batzuek:

“Kanpotik —beti berak—, ezpaitute bertze lanik, ez eta bertze sukarrik, gau eta egun, baizik ere nondik zer ele nahasi duten jalgi ahalko: guk maite ditugun guziak baitezpada beltztu beharrez lehenik, eta gero purtzupilaturik ezarri zangoen azpian, mintzaiak eta oro” (12).

Gizartearen eta Estatuaren arteko harreman sozio-politikoak ere berri-zapen ildotik doaz. Administarritza mailan, P. Bidartek aipatzen duen Estatu-Nazioaren sozializazioa edo frantses espazioaren nazionalizatzea orduan koka dezakegu, integrazio mugimendua Iraultza baino lehenago hasi bazen ere. Ez gara semantika horren aztertzen hasiko. Azpimarratu nahi duguna da gertatu diren aldaketa sozio-ekonomikoen eta sozio-politikoen ondorioz, nolako jarrera izan zen euskal ikasketen eta ikerketen munduan. Nostalgia-aren edo lehengo minaren mundua izan baitzen. Nostalgia horren azalgune argiena da 1895.an J.P. Arbelbide, Hazparneko Misionesten buruak argitaratu zuen liburua: *Igandea* (13). Igandearako otoitz eta kantuak ditu hor bilduak, baina lehen 49 orrialdeak (heldu baita 5 etarik 1) aitzinsolas gisa emanak dira. Liburuaren balio literarioa ez dut aipatzen baizik eta bere balio etnografiko paragabea. Aitzinsolasaren aztergaia da orduko euskal gizarteak jasaiten zituen aldaketak. Hona hemen nahiko adierazgarriak diren esaldi batzu:

“Nondire leheneko jaunzturak eta aphainduriak? Non dire egiazki herrikoak eta gureak ziren soineko hek? Arruntak ziren, baina merkeak, garbiak eta ederrak” (14).

(10) Elizanbururen kantuaren azterketa jadanik egina delakoan, ikus Jardunaldiotako aktak.

(11) J. Hiriart-Urruti, *Eskualduna*, 1892.

(12) *Ibid.*, 1909.

(13) J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren Eguna*, Lille 1895.

(14) *Ibid.*, 41 or.

“Pilota ere uzten ari du gazteriak; plazara joan orde, doaz dantzara eta ostatura” (15).

“Eskual-Herritik kanpo, hirietarat edo Ameriketarat joaiteko ezin egona” salatzen du edo “hirietarat eta Ameriketarat joaiteko duten errabia” (16).

Eta bururatzean emaiten duen aholkua ere nahiko adierazgarria da:

“Egon herrian (...) ohorezki bizitzeko (...) laborantzari jarraik eta izan bethi girichtino”.

Hona beraz barnetik aldaketak nola bizi zituen euskal gizarteak. Kanpotik aldiz nola ikusten zuten gizarte bera orduko ikerlariek edo zientzilariek? Sorburu edo iturri argiena 1897eko abuztuan Donibane Lohizuneen egin zen “Congrès de la Tradition basque” (17) jardunaldiak ematen digu. Beste dokumentu etnografiko bat baita. Ongi etorritako ospakizunak, bazkalondotako hitzaldiak eta prentsako txostenak aztergai hartuz jende horren kezka lau ardatzen inguruan bil ditzakegu: 1. Hizkuntza, 2. Aspaldikotasuna (egia erran frantsesez baizik ez ziren ari izan “antiquité hitza erabiliz), 3. Ohidura edo tradizioa, 4 Aberri ttipia eta aberri haundia (hemen ere frantsesezko hitzak erabili behar daitezke: “petite patrie (...) dans la grande patrie”). Semantikaren kontaketa bat egin daiteke. Adierazpen esankorrenak eman ditzagun:

*“Antiquité” semantikaren inguruan:*

“Conservation des vieilles mœurs” (3 or.), “ces vieilles provinces de France” (12 or.), vieilles chartes (...) meubles antiques (...) costumes anciens” (13 or.), “jeux séculaires”, “mœurs patriarcales” (16 or.), “antique capa du Pays Basque” (19 or.), “jeu primitif” (23 or.), “vieilles lois traditionnelles” (26 or.), “vieilles traditions” (38 or.), “mélodie primitive” (42 or.), “vieux auteurs” (43 or.), “vieux parents” (46 or.), “antique civilisation” (49 or.), “nos plus anciens institutions provinciales” (49), “objets précieux anciens” (51 or.).

*“Tradition” semantikaren inguruan:*

“Traditionnelle physionomie de nos provinces” (3 or.), “conscience de nos traditions” (6 or.), “tradition qui vivifie” (...) tradition des pensées” (6 or.), “tradition des formules” (6 or.),

(15) Ibid., 44 or.

(16) Ibid., 25-26 or.

(17) Aktak berrargitaratu ditu Elkar argitaletxeak, Baionan 1892an. Ondoko aipamenak hortik hartuak dira.

“tradition du foyer domestique” (15 or.), “drapeau de nos traditions” (16 or.), “conserver des nobles traditions” (16 or.), “conserver ses plus pures, ses plus originales traditions” (18 or.), “vieilles lois traditionnelles” (26 or.), “ch res et séculaires traditions” (29 or.), “tradition grégorienne” (42 or.), “sagesse traditionnelle” (50 or.), “tradition basque” (50 or.), “la liberté traditionnelle” (56 or.), “vos revendications traditionnalistes (56 or.).

Euskal ikerketarako eta ikasketarako munduaren jarrera nolakoa zen argi erakusten digu semantika honek: hizkuntza baino lehen zaindu eta salbatu nahi dena da desagertzen ari den gizarte bat, edo hobeki erran mundu bat, tradizioaren mundua; hizkuntzari buruz ikuspegi bizi eta dinamikarik ez da batere azaltzen; ikuspegi soziologikotik urrun dagoen kultura bat zaintzen da tradizioan gogortua, tradizio gogortua, bihurtua; ez dago euskal gizarte bizirik. Ildo honetatik joanez iker daiteke ere kongresu denboran muntatu zituzten erakusaldiak: “l’art des aïeux” edo gure arbasoen egiteko moldea zaindu behar da, iragana konserbatzen da oroimen gisa, desagertu eta jendea oroit dadin zerbait izan dela hiltzerako zorian den Euskal Herrian.

Gauzak ez dira halere ilunegi ikusi behar. Eraberritzeak, adaptazioak edo egokitzeak eta gaurkotzeak gertatu dira zientzia eta kultura alor desberdinetan. Nik gehienik ezagutzen dudana historiografia da. Xifrak eman daitezke XIX. azken hamarkadek ezagutu dituzten aitzinamenduetaz giza zientzietan. Euskal Herriko historiaz (Iparraldeaz ari naiz) idatzi liburuak, 1860 arte 16 ziren, 1861.etik 1900 tartean 87ra igon zen kopurua. Ipar Euskal Herriko historiaz idatzi artikuluak, 16 ziren 1860 aitzin, eta 1861-1900 tartean 383 taraino igon zen kopurua. Giza zientzietako agerkariak ere kontuan har ditzakegu. Erdarazkoak dira denak. lehenik agertu zena Paben izan zen, *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts*, Ipar Euskal Herriatik bakarrik 9 kide biltzen zituena, horietarik Duvoisin bi anaiak. Gero 1857.an argitaratua izan Gers departamentuan *Revue d’Aquitaine*; bultzatzaileak, karlismoari loturik, Zamakolaren eragina ere jasanik gaskoinzale eta euskalzale ziren, Xahoren aldekoak edo ideia berdinekoak, errepublikanoak. Agerkariaren lehen alean azaltzen den egitasmoa Europa osoa zeharkatzen duen Erromantismoak kutsaturik dagoela nabari da:

“Le plus beau titre original des Aquitains (...) c’est d’être les rejetons de la noble famille Euscarienne qui se fixe en Espagne deux mille ans avant l’apparition des Celtes. Ce qui prouve qu’ils furent les premiers occupants de notre pays ce sont les étymologies des noms généalogiques et topographiques (...) Les Basques furent donc deux fois nos pères; nous devons être fiers de cette descendance (...) Nous glorifierons (...) la langue euskarienne que dut parler l’Aquitaine à son berceau. Nous traduirons

les chants de Zekobegi et d'Altabiçar (sic), les hymnes où est célébré comme un souvenir d'hier, le passage d'Annibal, de Sertorius et du héros de l'Arioste, les poèmes cantabriques aussi vieux et aussi beaux que ceux d'Ossian" (18).

Beste agerkari bat bultzatu zuen Elizak, *Revue de Gascogne*, Euskal Herriko izen guti azaltzen bada ere idazleen artean. Baina euskal alorrean lan bat gaitza egin zuen idazle bat ezin dugu aipatu gabe utzi, J.F. Bladé, gaskoinzale felibrezalea, euskaldun batzuek hastio zutena zeren eta Humboldt-en ekarpena puskatu baitzuen 1869-1870 urteetan:

“Je dois convenir que j'aspire surtout à être jugé par la nouvelle génération déagée envers la mémoire de Humboldt de tous les devoirs qui ne résultent pas de l'admiration raisonnée” (19).

Molde berean gaskoinzaleak eta euskalzaleak eskuz esku zebilen beste bi agerkari suspertu nahian. Bata Baionan errotu zen, 1874.etik goiti, *Bulletin de la Société des Sciences et Arts*, bestea Paben, 1883.etik goiti *Revue de Béarn, Navarre, Lannes* izenburuarekin. Bietan euskalzaleak eta gaskoinzaleak aurki ditzakegu. J. Vinson, Jaugain, Dubarat, P. Labrouche eta Ch. Bernadou, gaskoin eta euskal kultura bateratzen zutela azken biek. Bereziki Bernadou-ri Loiolan gaindi ibiltzea gustatzen zitzaion A. d'Abbadie eta G. Adema lagunkide zituela. P. Labrouche, sortzez Baionesa, amaren aldetik euskalduna, felibre zale porrokatua zen.

Beste gudurik eramanen zuen aldiz Elizak Euskal Herrian bertan sortu zuen agerkari batekin: *Etudes Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne*, Haristoi eta Dubarat-en gidaritzapean. Agerkaria aski da irakurtzea ikusteko nolako lan gaitza zeraman orduan Elizak zientzietako eremuan Leon XIII-en irakaspenak bideratu nahian. Zientzi arloa ideologiaren eta filosofiaren burruka gunee bihurtua baitzen, bereziki III. Errepublikara eraiki eta finkatu zuelarik Frantziako Estatuak.

Ez ditagun gaitzets burruka horiek denak. Ekarri duten berrikuntza zerbaiti esker sortu da ere euskal kultur mugimendu berri bat gaurregun bizirik dagoena. Burruka ideologikoen sabeletik sortua baita Eskualzaleen Biltzarra.

1869-1870.urteetatik goiti Euskal Lore Jokoen inguruan hasi ziren eztabaidak. Lehen jorratzailea J. Vinson izan zen, 1869.an. Mementuz lasaitasunean gelditu zen kritika. Agerian azaldu ziren eztabaida politikoak 1874.etik goiti. Urte horretan Saran saristatuak izan ziren bi olerki ez baitziren batere denen gustukoak izan mamiaren aldetik. Lehen saria-

(18) *Revue d'Aquitaine*, 1857.urtea.

(19) J.F. Bladé, *Etude sur l'origine des Basques*, Paris, 1869 (aitzinsolasa).

ren irabazle Bizkaitar bat izan zen: “Jaungoicoa eta Erriya” olerki batekin. Berehala hasarrean jarri ziren “gorri” batzu (hitz horrek orduan “errepublikano” erran nahi zuen). Hona izenpetu gabe ateratu zen artikulua bat *L’Avenir des Pyrénées et des Landes* egunkarian:

“Voilà où l’on en était lorsque cette année notre illustre académie bascophobe, jugeant comme ci-devant, a déclaré digne de recevoir la palme d’honneur un certain chant biscaien dont la lecture a provoqué l’indignation générale. Monsieur le Maire de Sare a fait, d’après nous, bonne justice en refusant les honneurs publics au Biscaitar, et a montré plus d’intelligence assurément en empêchant de chanter cette médiocre prose rimée. En effet, non seulement le sujet, mais encore la forme, le fond et la valeur littéraire de cette composition sont d’une nullité achevée.

Pourquoi mêler les carlistes à nos fêtes publiques? Nous préférons la tranquillité des champs au cliquetis des armes et au sang fratricide qui se verse de l’autre côté des Pyrénées. Nous préférons la paix de nos montagnes au cri sauvage de guerre qui, est, à notre point de vue, une insulte à la divinité et à la patrie.”  
(20)

Nor izan zitekeen artikulua horren idazlea? J. Vinson bera ala Donibane Lohizunen bizi zen beste errerepublikano bat, M. Guilbeau? Behar bada biak.

Bigarren saria G. Ademari emana izan zen “Betirisantz” olerkiarekin Errepublikaz trufatzen zela (21). Orduko inguru giroan sartu behar dira G. Ademaren hitzak. Errepublika pizkortua zen orain Frantzian, lege berri batzu ere egiten ari, eskolaren (laikoarena) lehen aintzin pausoak ematen ari:

“Betirisanstarren haurreri  
Eskola zor zaie deneri,  
Bainan eskolan Jainkorik ez zilegi” (22).

1876.an berriz hasten dira tirabirak G. Ademak aurkeztu zuen olerkaria oraiokan ere Errepublikaren trufa baitzen “Biba Errepublika” izenburuarekin. Egia erran bazen hor hitz gogor, idor eta beltzik:

“Oro soldado eta jende eskolatu  
Nork beharko dik gero haintzurari lotu?  
(.....)

(20) *L’Avenir des Pyrénées et des Landes*, 1874.eko irailaren 19an.

(21) Olerki osoa *R.I.E.V.*-n emana da, 1909.eko urtean, 227-228 or.

(22) *Ibid.*



Framazon, arnegatu, zirtzil eta judu,  
 Guzien buruzagi horiek ditugu.  
 (.....)  
 Arrotzak ditiagu gure umeen jabe  
 Gero izanen gaituk gurerik deus jabe  
 (.....)  
 Nun dire Eskualdunen lehengo Fueroak?  
 Arbasoen parean gu zer gathiboak” (23).

Gauzak nola iragan ote ziren egun horretan Saran? Izan zela iskanbila, oihu eta murmurika Sarako ostatu zokoetan ez da dudarik. Izenpetu gabe dagoen artikulu bat dugu orduko oihartzunen lekuko:

“Il s’est produit cette année, dans le concours de poésie basque, un incident que nous croyons devoir signaler. Une dizaine de concurrents seulement ont pris part à ce concours: le jury chargé de distribuer les prix ne trouvait qu’une seule pièce digne d’être couronné; elle portait pour titre: “Biba Republika”! (sic). Grand était l’embarras des membres du jury: les mérites de l’oeuvre étaient d’une supériorité incontestable et la palme allait lui être décernée à l’unanimité. Mais une difficulté se présentait; la chanson était une satire vive et mordante contre le gouvernement républicain. Le cas devenait difficile: le jury s’en remit à la décision des fondateurs du prix qui, juges souverains, déclarèrent qu’il n’y avait pas à lui décerner de récompense. Voilà pourquoi il n’y aura pas de lauréat dans le concours de poésie basque de cette année” (24).

Ondoko urteetan gauzak makurtzen eta bazterrak nahasten ote dira? Dokumentu anitz falta da. Dakiguna da beren aldetik Euskal Lore Jokoak antolatzen hasi zirela M. Guilbeau eta J. Vinson, hasieran frantses izen batekin: “Association Basque des Jeux Floraux”. 1893.an Uztaritzen ospatu zituzten, gonbitatu ofizialetan zirela J. Salaberri, Mauleko notaria, A. Campion nafartarra, Harriague-Morroxo Hazparneko deputatu “gorria”.

1894.an “gorrien” Lore Jokoak Hazparnen ospatu ziren. Saria Otxaldek irabazi zuen erahila izan zen “Carnot” presidenteari eskaini olerkiarekin. Besteen gaia aldiz zen Maddalen Larralde, A. d’Abbadie-k berak proposatu zuena:

“Il y a juste un siècle, en 1794, dans toute la France, y compris le Pays Basque, les mécréants étaient maîtres, c’était les ennemis de Dieu”. (...)

(23) Ikus *Euskal Erria*, 1894, 465-467 or.

(24) *Ibid.*

J'ai prié Mr le Curé de Sare de chercher à savoir quelque chose sur la martyre Madeleine Larralde de Sare. Les gens de Sare connaissent bien cette histoire et Mr le Curé m'a envoyé ce travail.

Mes prix seront donnés à St-Jean-Pied-de-Port, au mois de septembre. Tous auront le même sujet à composer, à savoir: "l'histoire de la martyre Madeleine Larralde". Comme il se doit, les meilleures présentations de cette histoire seront récompensées" (25).

Saria nehorak ez zuen irabazi. Eta bi urtez segidan gai bera emana izan zen. Azkenean 1896 an, Maulen, saria eskuratu zuen Laurent Diharra sarri Ortaizeko erretorak, errepublikanoen etsai amorratua zena.

1897.eko Euskal Lore Jokoak Donibane Lohizunen iragan ziren Congrès de la Tradition Basque jardunaldien karietara. A. d'Abbadie eta Serbiako Nathalia erregina izan ziren ohorezko presidente. Gorriak aldiz Saran bildu ziren Elizanbururi oroitarri bat altxatzeko.

Iduri luke bazterrak noizbait lasaitu eta baketu zirela zeren eta euskalzale zuri eta gorri guziak Hondarabian bildu baitziren 1902-an oraindanik bizirik dagoen Eskualtzaleen Biltzarra sortzeko.

## ERANSKINAK

### I. Lapurdiko jendetzaren bilakaeraz estadistika batzu:

	<u>1876</u>	<u>1911</u>
Baiona . . . . .	27.426	27.886
Biarritze . . . . .	5.507	18.260
Angelu . . . . .	4.116	6.627
Donibane Lohizune . . . . .	4.083	5.372
Ziburu . . . . .	2.194	2.617
Hendaia . . . . .	1.453	4.213
Getaria . . . . .	576	719
	<u>1876</u>	<u>1911</u>
Biriatu . . . . .	618	555
Basusarri . . . . .	452	380
Urruña . . . . .	3.629	3.348
Uztaritze . . . . .	8.943	8.480
Hazparne . . . . .	9.478	8.132

(25) *Ibid.*

**II. Euskal Herriko emigrazioaz azaldu zuen jarrera A. D'Abbadie-k**

“Suberno (Urrugne) 1858, octobre 29  
Monsieur,

Bien que je ne me sois plus occupé de physique que d'émigration j'espère que ma qualité de propriétaire basque m'autorise à répondre à M. le professeur du lycée de Moulins. Il n'y a peut-être pas trois grandes fortunes dans nos contrées qui n'aient pas dû leur origine à l'émigration, et ce n'est pas d'hier qu'est née notre tendance à chercher gîte ailleurs, car le cahier des charges du Labourd, imprimé en 1789, dit qu'à partir de 1750 ce pays avait perdu les deux cinquièmes de ses habitants. Je laisse à d'autres à prouver que l'émigration est aussi forte aujourd'hui.

La puissance et surtout les tromperies des embaucheurs me semblent au moins exagérées. J'ai déjà perdu plusieurs domestiques par l'émigration, et comme je ne blamais pas le projet de s'expatrier, j'ai pu en connaître l'origine et le discuter froidement avec eux. Ils avaient des lettres de leurs parents ou amis établis en Amérique; ils disaient qu'on ne réussit dans ce monde lointain qu'à la condition de bien travailler, et cependant ils partaient. Pour trouver les vraies causes de l'émigration, il faut remonter bien plus haut et non s'arrêter aux paroles creuses d'un embauteur. Ces mêmes causes me paraissent détourner nos émigrants de l'Algérie, et priver ainsi notre belle colonie africaine d'un appoint de vigueur et d'avenir qui, à mon grand regret, lui fera longtemps défaut.

Je ne connais l'Alsace que par ce que M. Beaume en dit; chez nous aussi les petites propriétés sont nombreuses et obérées. Au contraire, nos landes sont étendues et nombreuses; elles touchent à nos champs, et il est rare que nous songions à les défricher. Les avis du gouvernement ne nous en inspireront pas la pensée, et il est d'ailleurs trop sage pour vouloir en venir là. Il me paraît au moins oiseux de proposer que l'autorité donne une prime pour encourager l'émigration vers l'intérieur de la France. Cette idée me semble venir de notre manière de tout réglementer en grand, et de faire intervenir le ministre dans nos moindres affaires, comme si le gouvernement n'avait pas assez de préoccupations et plus sérieuses et plus élevées.

Le projet de rapatrier les émigrants au moyen d'un transport gratuit ne saurait remédier à ce qu'on appelle un mal: nos Basques ne sont pas si pressés de rentrer en France. Pour ne

parler que de mes voisins immédiats, l'un d'eux raconte à qui veut l'entendre comment il est revenu chez lui après avoir fait fortune à Montevideo. Un autre quelque peu mon débiteur, et forcé de servir les intérêts à des créanciers plus importants que moi, ne réussit à conserver entre ses mains sa propriété obérée qu'en profitant des fonds que lui transmet régulièrement son fils établi à Buenos Aires. Un troisième, ouvrier laborieux et plein d'avenir, a laissé ici un père, relativement riche et conseiller municipal dans Urrugne, pour chercher fortune en Amérique. Cet ouvrier a épousé sur les rives de la Plata une fille de Hasparren: il écrit souvent et affirme toujours qu'il est en voie de prospérité. Un quatrième, fils d'un de mes métayers, est revenu de l'Amérique du Sud pour obéir à son père infirmier, et bien que ce dernier l'eût désigné pour être son successeur auprès de moi, le fils a mieux aimé dépenser son reste d'argent pour se rendre, il y a trois semaines, à Bordeaux, où il s'est embarqué pour le Nouveau Monde.

Ces exemples suffisent pour montrer que quelques-uns du moins, s'expatrient en connaissance de cause.

Au reste, je me refuse à admettre que l'émigration soit un mal. Elle est plutôt le résultat d'une exubérance de vie et de forces: elle sème dans les pays lointains le nom et l'influence de la France. En nous privant partiellement de nos ouvriers agricoles, elle ramène notre attention vers des méthodes de culture perfectionnées, et nous fait songer à l'emploi de ces machines qui ont élevé si haut l'agriculture de la Flandre et de l'Angleterre: privés de nombreux voisins, nous apprenons à mieux employer nos propres forces, et notre vigilance doit s'accroître par le fait même de notre isolement.

Mais les causes et les suites de l'émigration sont peut-être trop compliquées pour qu'il soit permis de se borner à de simples théories. Cherchons donc en d'autres pays les effets de ce que les Anglais ont nommé un exode (.....).

Mais il est inutile de multiplier des renseignements pour prouver une thèse que notre gouvernement, plus instruit que je ne saurais l'être, a déjà sanctionné. Excité par les plaintes de nos contrées, il est prescrit le soin de surveiller l'émigration, de la faciliter pour cela même, mais d'empêcher avant tout que nos populations ne deviennent la proie d'agents cupides et intéressés à leur ruine. On a dit que c'est un devoir pour les sujets de dénoncer les fautes de ceux qui les régissent: mais c'est un

devoir plus grand encore de signaler leurs décisions, quand elles sont justes, équitables, et conformes aux plus hauts principes de politique”.

A. d'Abbadie  
Correspondant de l'Institut

Iturria: *Le Messenger de Bayonne*, 1854-11-2-a.